

PAUL McCARTNEY

Lore artean azaldu
pozik, irrifartsu.
Bere eskua zabaldu
eta hamaika uso
irten dira bertatik
urruna eta kantuz.
Aldi bedi mundua
aski du sufritu.

Paul McCartney
Hegan dabil

Urteak pasa ahala
gaztetu egin zaigu.
Ez dugu inoiz ikusi
orain bezain prestu.
Zaharrak ditugu gazte
bere kantzak medio,
mutikoak aspaldi dira aguretu.

Paul McCartney...

Emazte du ederra
nahiz eta Linda deitu,
petrolotan bainatu
egiten da goizero.
Bera bezain garbiak
nahi omen gaitu gu,
bere senarra eredu
hartu behar dugu.

Paul McCartney...

ADISKIDEA

Bere irrifar zabala
hiltzaile bat da
ume jario berri ugari
akatu duena.
Ez begiratu begietan,
ez begiratu.
Bere aurean jarriz gero,
zureak egin du.

Lagunmina omen dudana,
adiskidea.
Lagunmina omen dudana,
ene arerioa.

Eskeintzen duen eskua
bere arma da,
lagungarria itxuraz
baina zitala.
Sugegorriaren antzera
zure lepoa,
uneoro du gogoan
—maitale fina—

SINESTEZINA

Txakurra zihoan
autoan gidari
eta txerria hegan
ikusi omen dute.
Pink Floyd izango ote?

Sinestezina

Ehiztari prestuak
usoen jagale.
Militar guztiak
orain pakezale.
Zer ipuin ote da hori?

Sinestezina

Hitz-askatasuna
ororen gainetik.
Zernahi edozeinek
esan ei dezake
—El País—en noski.

Sinestezina

TO!

Aleluia, Aleluia, heldu da az-
kenean
gure artean daukagu.
Izan da luzea, luzea benetan
gure itxaronaldia.
Etxera noa arin laguna deitzera,
behar legez zoriontzera:
«Mila esker, aizak, preziazten diat
baina nik ez diat behar».
Harzak to
Harzak to to
Harzak to
Harzak to to to

Horrela esango diot ihardeste-
rakoan:

«Aizak to, eramanzak
ez diat nik izan usoen beharrikan,
zikin-zikinak dituk.
Neri bost letratako hitzik ez aipatu
ezjakina nauk eta.
Harzak to
Ezjakina oso, baina ez tentela,
hiretzako gordezak».
Harzak to
Harzak to to
Harzak to
Harzak to to to

Mundu osoa hiretzat, har ezak es-
kuean,
hori nahi baldin baduk,
pilota bezala jaso ta botazak
ormak oro zai dauzkak.
Gaurko txapelketa honek Pakea
du izena,
oso entzute handikoa.
Jo ezak, jo hortaz, gogoz eta
kemenaz,
hi bait haiz txapelduna.
Harzak to
Harzak to
Harzak to
Harzak to to to

HANBURGESEN INBASIOA

Inork ez daki, ez, nondik datozen
edota nola diren sortuak.
Jupiter, Marte, Saturnon agian
izango dute jaioterria.

Kontuz ibili behar!

Hanburgesak hemen daude
gure artean ditugu.

Inork ez daki, ez, nondik datozen
baina hemen ditugu edonon.
Aseezin, krudel eta orojale,
odol freskoa beti gogoan.

Kontuz ibili behar!

Hanburgesak hemen daude
gure artean ditugu.
(hanburgesak, ez jan-burgesak)
Ez dute inor bereizten
den-dena irensten dute.

Giza-akela behar omen dute
bizirik iraun ahal izateko.
Gizon, andre, zahar edota ume
ez omen die batere oxola.

Kontuz ibili behar!

BINGO!

Egunero doa
bingora
Pakita Mendibil.
Bingora
apain-apaina.

Bingo! Bingo! diote
berea izango ote?

Kuttuna omen dauka
han bertan.
Kartoiak erosi
eta ondoan
eseritzen zaio.

Bingo! Bingo! diote
berea izango ote?

IKUSI MAKUSI

So ari da so.
Betidanik ari da so.

Begira egoten da beti
pasatzen denari so,
gauzak denak ditu ikusi
ez du inoiz deus galdu.

Ikusi zuen ikusi,
Kantauroren bilkura,
Kanposantuak utzirik
zonbi oro bilduta.

Ahaatu nahi du, ahaztu.
Nola ordea?

So ari da so.
Betidanik ari da so.
Ikusi zuen ikusi,
har gosetien poza.
Afarí ederra Madrildik
haiantzat ekarria.
Banpiroak ere alai ari ziren zurrutan,
epel zegoen oraindik
gorpuren odola.

Ahaztu nahi du, ahaztu.
Nola ordea?

So ari da so.
Betidanik ari da so.
Ikusi zuten ikusi
belea otoitzean,
bihotz ttipi bat eskeiniz
pakearen aldaretan.
Egun luzeetan kantari
aritu zen nekaezin.
Zaldi-burrunba ozenki
zeterren itxasotik.

Ahaztu nahi, ahaztu.
Nola ordea?

ATXERA ETXERA

Argitu bezain laster
bidean jarri zara
ekipaia urria
ia esku-hutsik.
Etxe handi-zurria
zure atzean lagata
goiz-lainoan barrena
aurrera begira.

Non zaude?
Galdetzen dizute.
Non zaude?
Beldur, jakinmin ez.
Non zaude?
Ez duzu ulertzen.
Non zaude?

Soroak bi aldeetan
oraindik daude lotan
errepide honetatik
ez da inor pasatzen.
Bele baten karranka
entzun da bapatean
bidai hopnetarako
laguntza bikaina.

Non zaude?...

Psikoanalistarenean etzanda
ametsak kontatzen dizkiozu.
Erotua omen zaude!

Zerua eta lurra
biltzen diren uanean
zerbait antzematen da:
Gasolindegia.
Zure esku urdurtek
zenbakia osatu dute
laster oso entzungo da
ahots ezaguna.

Non zaude?...

HAMARKADA MIRESGARRIA

Lotan ginen
elhu egin arte norbaitek (Sua)
Kixkalita
geratu bide zen guztia (Sua)
Borroka garalak
omen ziren halek
eta inork ez zezakeen
aipa beste ezer
zillegi-er zela
denbora galtzea
esaten ziguten
behin eta berriro.

Bibolina entzuten da, arrabita
zein gozoa!
Goazen berriz lotara.

Gerla beti
pop zikinari geria bati (Sua)
«Popero hariak
ez ditek oso luze iraungo» (Sua)

Dinosaurioak
Akatu behar ziren
eta borroka horretan
Kitarrak zorroztu,
Garraxi, deihadar
oihu eta txistuko
ihardun genuen guk
inoiz ez ahots gozoz.

Bzinolin...

Batbatean
zerbait aurkitu omen zuten (Sua)
arartean
zehara arrotz zitzaiena (Sua)
Bihotza gihar bat
besterik ez zela
zioten berdinek
amodioaren xarmaz
ohartu berriak
urkatuaren sokak
jotzen duen doinuak
maite dute egun.

Bibolina...

TRANSJITU EXPRESS

Transjitu Express badoa.
Transjitu Express aurrera.
Transjitu Express Irundik.
Transjitu Express Mundura.

Nor gidatzen ote du horrela?
Nor izango ote da hori?

Transjitu Express...

**Lo inoiz ez. Erne beti.
Man-hemenka Jitu dabil.**

Transjitu Express...

LAPURREN ARTEAN

**Non zegoen, nola iritsia zen galdezka zebilen.
Galdetu honi ta galdetu hari, baina erantzunik ez.
Portu hartan ontxi guztietan bandera berbera.
Marinelak, begitarte ilunean: doilorkeria.**

**Ez zekien, mamu ala gizonak, zer ote ziren.
Batzuetan, labana sartzea otu zitzaion.
Eta ikusi hala zainetan zer zeukaten, adola edo tinta.
Tinta beltza, kalamaren antzera, ezkutatze.**

**Bapatean, uste izan zuen bazekiela.
Guzti haiek lapurrak zituen, zalantzarik ez.
Kostaldean, harkaitz halen kontra goltzen zirenak
jaso ondorne, arima ohostu kupidagabe.
Beharbada guztiau, ipuin bat besterik ez da.
Beharbada ez da inoiz gertatu. Bana tinta hori orduan?**

HERRIMINA

**Zer egin ez dakiela, nahiko luke beste nonbaiten egon.
Zoritxarrez hemen dago, pasatzen den guztari so.
Gogaitua, nazkatua, denboraren aurka borrokan.
Etsipena, ezin uka, bihurtu zaio lagunmina.**

**Deus ez da gertatzen
deus ez da gertatzen
deus ez da gertatzen inoiz.**

**Sorterria urrun da eta. Itzultzerik izango ote du?
Betidanik herbestean, baina halere ezin ahaztu etxea.
Azpaldiko ezagunak biziko ote dira oraindikan?
Oraindikan esku batek gordeko ote dio laztanen bat?**

Deus...

EGUN GINEN

**Beyrouth sartaldee
uraren ordex hautsa
eta bost mila izar gehiago gauetz
norien alboan
damasko irratian rock the cashbah
Fedayinen auzunean ramaden
garorik gabeko basamortuak inguratzen du
sortaldeko Beyrouth
hondarrezko gartzelan
itxelik gabe pasietzen dira maiteminduak
norien alboan
barraka itxiek
ezinaren mugak laztentzen tituzte.**

**Zelako krisi
halako bizi
Beyrouthen ez da inor bizi!
100 ginen
22**

**orain bakarrik gaude 2
Zelako krisi
ezin gaitzeko superbizi!**
100 ginen

**22
Orain bakarrik gaude 2
zu ta ni, zu ta ni, nininininini!
ZELAKO GRISI!!!!**

GOR

**Gor, gor ta itsu
harri eta lur.**

**Milaka mezu, ohar eta iragarki;
bakoitza bala bat buruan.**

**Ele-bonbek, irudi-errafagek, su gurutzatuan
xehatu didate zentzua.**

**Ez naute harrapatuko hain errez, ez.
Neurri guztiak hartu ditut.
Neronen jabetzaren galera baino
nahiago gor, gor eta itsu.**

HERRIMINA

M-ak: Mikel Irazoki - Kaki Arkarazo - Fernando Leiza - Xabier Montaña
Donostiako IZ-n K.Arkazarok bragaraturik 1990eko Otsailatik Apirilara bitartean.
Argazkiak eta zuzeneko soinua: Angel Gonzalez Katarain.
harremanetarako: Matxitxa (943) 60 33 25